


Iruzurgile ala matxino?




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Judea, K.o II. mendea. Erromatar probintziako giro nahasi betean, Gandalias eta Saulosen kontrako epaiketa egin zuten, iruzurra eta zerga-saihestea leporatuta. Epaiaketaren berri grekeraz idatzitako 133 lerroko papiro batean jaso zuten (argazkian). Dokumentu nabatea zela pentsatuta, ahaztuta geratu zen papiroa. Baina 2014an Hannah Cotton ikerlaria esku artean zuen dokumentuaren garrantziaz jabetu zen –horregatik esaten diote *Cotton* papiroa– eta, berriki, *Tyche* aldizkarian hari buruzko ikerlan xehearen berri eman dute.

Gandalias notario baten semea zen, ziurrenik erromatar hiritartasuna zeukana. Indarkeriagatik, estortsioagatik eta dokumentuak faltsutzeagatik salaketa mordo zeukan aurrez, beti ere papiroaren arabera. Saulos Gandaliasen konplizea zen eta, epaileen ustez, bera izan zen dokumentu faltsuak erabiliz zergak saihesteko plana prestatu zuena: faltsutzearen bidez, esklaboak ezkutuan erosi eta, ondoren, askatu omen zituzten, jarduera horiei zegokien zergak ez ordaintzeko.

Erromatar legeak ustelkeria, iruzurra eta faltsutzea gogor zigortzen zituen, zenbait kasutan heriotza zigorra ezartzeraino. Dokumentuak fiskalaren prestaketa lanak eta hainbat testigantza jasotzen ditu, baina ez dakigu azkenean zer zigor ezarri zieten akusatuei. Gainera, papiroan bestelako delituak ere le-



TYCHE

poratzen zaizkie, esaterako, 129. urtean Adriano enperadoreak probintziara bisita egin zuenean errebolta-ekintzak antolatuta izana.

Judeako giroa oso nahasia zen garai hartan; Bar Kokhbacko matxinada lehortzearen zen. Gainera, esklaboak erosi eta aske uztea ez da sekula negozio errentagarria izan; zergak saihestuta, gehienez, galerak murriztea lortuko zuten.

Orduan, erromatar probintzietan administrazioak eta epaitegiek nola funtzionatzen zuten azaltzeaz gain, zer dakarkigu *Cotton* papiroak? Erromatar legeak iruzurraren kontra zeukan jarreraren adibide xehe eta garbia da? Ala, gerora hainbestetan gertatuko zen bezala, zerga-iruzurra aitzakia hutsa izan zen inperioaren aurkako jarduna zigortzeko? ●



KRIEGERKALLE

Antzinako hegaztien gidaliburua

Poloniar ikerlari talde batek Sevillako Italica aztarnategiko Txorien Etxea aztertu du, eta eraikinaren zoruko mosaikoak erromatar garaiko hegazi-bilduma xeheena dela ondorioztatu du. Txorien etxean 33 hegazi daude mosaikoetan xehetasun handiz irudikatuta. Beste aztarnategi batzuetan ere aurkitu dituzte antzeko irudiak, esate-

rako, Ponpeian eta Alexandrian. Hau da, horrelako *aviaria*-k ohikoak ziren. Baina, *Collectanea Philologica* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, Sevillako bilduma balio artistikoaz harago doa, eta Alexandro Mindokoaren edo Plinio Zaharraren ornitologia-tratatuetako deskribapenetatik oso gertu daude. ●